

lehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era nahiz 16:00etatik 19:30era bitartean.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

c) Dosiera aztertzea:

Dosiera abiarazi duen sailean aztertu ahal izango da dosiera, jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den egunaren bezperara arte.

Kontratugilearen profila ikusteko:  
[www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak](http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak).

7. Eskaintzak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: 8 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

b) Ordutegia: 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945-161398 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen agiria.

e) Aurkezteko tokia: Gasteizko udaletxeko Erregistro Nagusian – Olagibel kalea 2, 01001, Gasteiz– aurkeztu beharko dira eskaintzak.

f) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

g) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala (administrazio agiriak) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren lanegun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamaika eta erdietan (11:30).

C gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen irizpideak baloratzeko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azala zabaltzen den egunaren ondoren lanegun egokitzen den lehenengo asteazkenean, hamabiak eta laurdenetan (12:15).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balioespen-irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean ([www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak](http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak)) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragakien gastuak: esleipena egokitzen zaionaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 13an.– Herritar Harremanen Saileko zuzendaria, JOSÉ LUIS PÉREZ GÓMEZ.

## VITORIA-GASTEIZ

HERRITAR HARREMANAK

*Euskara*

279

### **Merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko diru-laguntzak emateko udal programaren deialdia.**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 27an egindako ohiko bilkuran onetsi egin zuen merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko diru-laguntzak emateko udal programaren deialdia.

Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

945-140678 de lunes a viernes en horario de 9 a 13:30 horas y de 16:00 a 19:30 horas.

b) Fecha límite de obtención de documentos e información: “Hasta la fecha límite de presentación de proposiciones”.

c) Examen del expediente:

El expediente estará de manifiesto en el Departamento que haya iniciado el expediente de contratación, a disposición de quien desee examinarlo, hasta el día anterior al señalado para la entrega de las proposiciones, durante las horas de oficina de atención al público.

Forma de acceso al perfil del contratante:  
[www.vitoria-gasteiz.org/concursos](http://www.vitoria-gasteiz.org/concursos)

7. Presentación de las ofertas.

a) Fecha límite de presentación: En el plazo de 8 días naturales contados a partir del día siguiente a su publicación en BOTHA. Si el último día fuera sábado o festivo se trasladará al siguiente hábil.

b) Horario de 8:30 a 13:00 horas de lunes a viernes.

c) Envío por correo: En las condiciones establecidas en el artículo 80.4 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. El número de fax al que se debe remitir el anuncio de envío por correo es el 945-161398.

d) Documentación a presentar: “Ver pliego de condiciones administrativas”.

e) Lugar de presentación: “Las proposiciones deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la calle Olaguibel nº 2, 01001 Vitoria-Gasteiz.

f) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: 3 meses.

g) Apertura de las ofertas:

La apertura del sobre B (Documentación Administrativa) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto no público, a las once horas y treinta minutos (11:30 horas) del primer miércoles hábil siguiente al día de terminación del plazo de presentación de proposiciones.

La apertura del sobre C (Documentación técnica para la valoración de los criterios de adjudicación que dependen de un juicio de valor no cuantificable por fórmula) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a las 12 horas 15 minutos (12:15 horas) del siguiente miércoles hábil al de la apertura del sobre B.

La apertura del sobre A (Proposición económica y documentación técnica para la valoración de los criterios de valoración, distintos del precio, que deban evaluarse mediante la aplicación de una fórmula) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a la fecha y hora que se indique en el perfil del contratante del órgano de contratación (<http://www.vitoria-gasteiz.org/concursos>).

8. Gastos de anuncios: Serán por cuenta del adjudicatario.

Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2011. Director del departamento de relaciones ciudadanas, JOSÉ LUIS PÉREZ GÓMEZ.

## VITORIA-GASTEIZ

RELACIONES CIUDADANAS

*Euskera*

279

### **Convocatoria del programa municipal de subvenciones para promocionar la presencia del euskera en el ámbito del comercio.**

En sesión ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local el día 27 de diciembre de 2010, se aprobaron las bases de la convocatoria del programa municipal de subvenciones para promocionar la presencia del euskera en el ámbito del comercio.

De conformidad con el artículo 23 y siguientes del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y la Ordenanza Municipal de Subvenciones, y el reglamento que desarrolla dicha ley, se publican las mismas para general conocimiento.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 13an.– Lehendakaritza Arloko zinegotzi ordezkaria, MAITE BERROCAL CEBRIÁN.

Gasteizko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, merkataritzaren arloan euskararen presentzia sustatzeko eman ahalko dituen laguntza ekonomikoak arautzea eta horiek ematea dute xede oinarri hauek. Honako jarduera hauek diruz lagundu daitezke:

- Merkataritza establezimenduen kanpo errotulua aldatu eta bertan euskara sartzeko.
- Web orriak itzultzeko eta egokitzeko, euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezten.

- Establezimenduaren hizkuntza egoeraren diagnostikoarekin, ebaluazioarekin edo zertifikazioarekin lotutako gastuak, eskusiboki horretan ari diren entitateek eginda denean.

Diru-laguntza gisa emango dira laguntzak, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.) eta aplikagarri diren gainerako lege-arauetan jasotakoaren ildotik.

#### Onuradunak

Ezaugarri hauek dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek eskuratu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen diren laguntzak: bizilekua Gasteizko udalerrian izan eta merkataritza jardueraren batean aritzea, diruz laguntzen diren lanak 2010eko apirilaren 1etik 2011ko martxoaren 30era bitarteko epean egin izana eta jarduera enpresa txikitzat jotakoa izatea.

Erabilitako testuek zuzenak izan beharko dute, ortografia akatsik gabek. Bestela ez da diru-laguntzarik emango. Testuari buruzko zalantzarik izanez gero, interesdunek Euskara Zerbitzuan kontsulta dezakete edo Udalak eskaintzen dituen itzulpen-zerbitzua erabili.

Erakunde berak ezingo du eskabide bat baino gehiago aurkeztu deialdi bakoitzeko. Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

1. 50 langile baino gehiago ez izatea.
2. Urteko negozio-bolumenak edo balantze orokorrak 10 milioi euro ez gainditzea.
3. Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25eko edo hortik gorako partaidetza zuzena nahiz zeharkakoa ez izatea bertan.
4. Ekonomi Jardueren Zergaren epigrafe hauetan sartuta dagoen merkataritza-jardueraren bat gauzatzea:
  - 64: janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan.
  - 65: janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan.
  - 662.2: era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.
  - 676: elikadura zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata dendetan.
  - 615.6: arte-galeriak.
5. Ekonomi jarduera Gasteizko udalerrian eta kalearen altueran kokatutako lokal batean garatzea.
6. Administrazio publikoen aurreko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere. Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharren egoera ofizios begiratuko da.

7. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarte edo lanbide jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak...).

8. Ezingo dira onuradun izan beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galazten duten erakundeak, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutenak, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 11.c) artikulua xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteiz, 13 de enero de 2011.– Concejala Delegada del Área de Presidencia, MAITE BERROCAL CEBRIÁN.

Es objeto de las presentes bases la regulación de la convocatoria y concesión de las ayudas económicas que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a través del Servicio de Euskera, podrá otorgar para financiar alguna de las siguientes actividades de promoción de la presencia del euskera en sus establecimientos:

- Cambiar la rotulación exterior de establecimientos comerciales e introducir el euskera en su denominación.

- Adecuación y/o traducción de páginas Web para adaptarlas a euskera y castellano.

- Gastos relacionados con diagnósticos, evaluación y/o certificación de la situación lingüística del establecimiento, realizados por entidades dedicadas exclusivamente a esas tareas.

Las ayudas se concederán en concepto de subvenciones, sujetaándose las mismas a la Ordenanza Municipal de Subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (BOTHA Nº 5, de 13 de enero de 2006) y al resto de la legislación aplicable.

#### Beneficiarios:

Podrán ser beneficiarias de las ayudas que contemplan las presentes bases las personas, físicas o jurídicas, domiciliadas en el término municipal de Vitoria-Gasteiz, con actividad mercantil en el citado término municipal, que hayan realizado las tareas objeto de subvención entre el 01 de abril de 2010 y 30 de marzo de 2011, y tengan la consideración de pequeña empresa.

Los textos usados deberán ser correctos y sin faltas de ortografía. De no ser así se denegará la subvención. Los interesados pueden consultar sus dudas sobre el texto en el Servicio de Euskera o usar los servicios de traducción que oferta el propio Ayuntamiento.

Una misma entidad no podrá presentar más de una solicitud por convocatoria. Los beneficiarios deberán cumplir los siguientes requisitos:

1. Tener una plantilla que no supere las 50 personas empleadas.
2. Tener un volumen de negocios o un balance general anual que no supere los 10 millones de euros.
3. No hallarse participada directa o indirectamente en más de un 25 por ciento por empresas que no reúnan alguno de los requisitos anteriormente expuestos.
4. Desarrollar una actividad económica mercantil encuadrada dentro de los siguientes epígrafes del IAE:
  - 64: comercio al por menor de productos alimenticios, bebidas y tabaco realizado en establecimientos permanentes.
  - 65: comercio al por menor de productos no alimenticios realizado en establecimientos permanentes.
  - 662.2: comercio al por menor de toda clase de artículos.
  - 676: servicios de alimentación en chocolaterías, heladerías y horchaterías.
  - 615.6: galerías de arte.
5. Desarrollar su actividad económica en un local ubicado a pie de calle dentro del término municipal de Vitoria-Gasteiz.
6. Encontrarse al corriente de sus obligaciones frente a las diferentes administraciones públicas con las que tengan exigencias de carácter tributario, así como al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social. La situación tributaria respecto al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz será comprobada de oficio.

7. En cualquier caso, quedan excluidas las sociedades públicas y entidades de derecho público, así como las entidades sin ánimo de lucro y las que realicen actividades asociativas o profesionales (asociaciones, colegios profesionales... etc.)

8. No podrán ser beneficiarios quienes impidan la presencia y/o participación de mujeres o de hombres, en términos de igualdad, en el seno de dichas entidades; salvo aquellas compuestas por miembros de un solo sexo, cuyo objeto principal sea la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, o la promoción de los intereses y necesidades específicas del colectivo de las mujeres o de los hombres, de conformidad con el artículo 11.c) de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

9. Onuraduna ezingo da egon Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera horrelakorik jasotzea galarrizten duen egoeraren batean.

#### Diru-laguntzaren zenbatekoa

Proiektuaren kostuaren ehuneko 50era arteko diru-laguntza emango du Udalak eta eskabide bakoitzeko gehienez 300 euro jaso ahal izango du. Diru-laguntzen zenbatekoak aurrekontu-partidan dagoen kreditua gainditzen badu, dagokien hainbanaketa aplikatuko zaie.

Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta zehaztutako epearen barruan egindakoak joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat. Horiei dagokienez, eroste kostuak ezingo du inolaz ere merkatuko baliotik gorakoa izan.

#### Beste diru-laguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi-oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Batasuneko, dela nazioarteko– emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugaraino.

#### Aurrekontu zuzkidura eta eskaera egiteko epea

2010eko udal aurrekontuetako 1440.1242.48005 partidaren kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak. Partida horren zuzkidura 4.500 eurokoa da.

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2011ko maiatzaren 1ean bukatuko da.

#### Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Udalak egiten dituen egiaztatze jardueren menpe jartzea.
- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu nahiz eskuratuz gero, Udalari jakinaraztea. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.
- Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.
- Diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzea.
- Diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen ez badira, jasotako diru publikoa itzultzea; halaber, dena delako jarduera kostatu dena baino gehiago jaso bada, soberakoa itzultzea.

#### Agiriak

Diru-laguntzaren eskabidea kanpoko errotulua aldatu ondoren aurkeztu beharko da, agiri hauekin batera:

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nortasun-agiriaren fotokopia; eskatzailea pertsona juridikoa bada, Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, eta eskabidea egiten duen pertsonaren nortasun-agiria eta ordezkatzeko-ahalmena.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergako alta eta baje egiaztagiria.
- Establezimenduari dagokion jabetza agiri edo alokairu kontratuaren fotokopia.
- Proiektua gauzatu dela ziurtatzen duten froga dokumentalak: errotuluen argazkia, Web orrien kapturak....
- Egindako gastuen jatorrizko fakturak. Fakturak 2010eko azaroaren 1etik 2011ko martxoaren 30era bitartean egindakoa izan beharko du.

9. La persona beneficiaria no podrá estar incurso en circunstancias que prohíben ser beneficiario, previstas en la Ley General de Subvenciones (Ley 38/2003 de 17 de noviembre).

#### Cuantía de la subvención

El ayuntamiento subvencionará el 50 por ciento del importe del proyecto, hasta un límite de 300 euros. En el caso de que el importe de las subvenciones supere el crédito disponible en la convocatoria, se les aplicará el prorrateo que corresponda.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el periodo señalado. En ningún caso, el coste de adquisición de tales gastos podrá ser superior al valor de mercado.

#### Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

Las subvenciones objeto de regulación por la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que para la misma finalidad hayan sido concedidas por cualesquiera administración o ente público o privado, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta, se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

#### Disponibilidad presupuestaria y plazo de solicitud.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria se financiarán con cargo a la partida 2010/1440.1242.48005, dotada con un importe de 4.500 euros.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOTHA, y finalizará el 1 de mayo de 2011.

#### Obligaciones de las empresas beneficiarias

Las empresas beneficiarias de estas ayudas estarán obligadas a:

- Someterse a las actuaciones de comprobación del ayuntamiento.
- Comunicar al ayuntamiento la solicitud y/o la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca.
- Comunicar al ayuntamiento la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
- Acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.
- Proceder al reintegro de los fondos públicos percibidos en el supuesto de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

#### Documentación preceptiva

Las solicitudes de subvención deberán presentarse una vez realizado el cambio de la rotulación exterior y deberán venir acompañadas de la siguiente documentación:

- Fotocopia del documento nacional de identidad en el supuesto de que el o la solicitante sea una persona física, o en el caso de personas jurídicas: copia de la tarjeta de identificación fiscal, junto con el documento nacional de identidad y poderes de representación de la persona solicitante.
- Certificado de altas y bajas en el impuesto de actividades económicas.
- Fotocopia del título de propiedad o contrato de arrendamiento del establecimiento.
- Pruebas documentales de que el proyecto se ha llevado a cabo: fotografías de los rótulos, capturas de pantalla de la página Web.
- Facturas originales de los gastos realizados. La factura deberá haber sido emitida en el periodo comprendido entre 01 de abril de 2010 y 30 de marzo de 2011.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria.

- Baterako zinpeko aitortpena. Aitorpen bakarraren baitan honako hauek jasotzen dituen:

1. Laguntza deialdiaren oinarriak ezagutzen eta onartzen direla dioen aitortpena.

2. Enpresa txikitzat jotzeko betekizunak betetzen direla dioen aitortpena.

3. Eskatzailea diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan sartuta ez dagoela dioen aitortpena.

#### Eskabideak aurkeztea

Gasteizko udaletxeko Erregistro Nagusian (Olagibel,2) aurkeztu beharko dira eskabideak, agiriekin batera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuko da.

Pertsona interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Eskabidea behar bezala bete ez bada edo eskatutako agiriak erantsi ez bazaizkio, Euskara Zerbitzuak horren berri emango dio interesdunari, faxez edo posta elektronikoz, eta hamar eguneko epea utziko dio falta diren agiriak aurkeztu edo akatsak zuzentzeko, jakinarazte egunaren biharamunetik aurrera kontatuta. Orobat adieraziko zaio hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela, 30/1992 Legearen 71. artikulua agintzen duen eran behar den ebazpena eman ondoren.

#### Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen delarik, gehienez bi hilabeteko epea izango da horiek ebazteko. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, eskabidea ezetsitatzat joko da. Deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideei ezezkoa emango zaie.

Tokiko Gobernu Batzarrak Lehendakaritza Arloko zinegotzi ordezkariaren esku uzten du diru-laguntza hauek emateko eskumena.

Herriar Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuak egingo dio diru-laguntzak emateko proposamena Lehendakaritza Arloko zinegotziari, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua eratu den kide anitzeko organo baten bitartez.

Hiru kidek osatuko dute delako organoa: Herriar Harremanen Saileko zuzendariak edo ordezkari izendatzen duen pertsonak, Euskara Zerbitzuko buruak edo ordezkari izendatzen duen pertsonak, eta Euskara Zerbitzuko teknikari batek.

Diru-laguntza eman zaiola jakinarazi ondorengo 15 egunetan onuradunak berriaz uko egiten ea badio, hura onartu egin duela esan nahiko du.

Eskabidearen ebazpenaren berri emango zaie interesdunari, eta orobat jakinaraziko horrek agortu egiten duela administrazio bidea, eta berorren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean –jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta–, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean –jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta. Eskabidearen ustezko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, sei hilabeteko epean, ustez ezezko ebazpena gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

#### Diru-laguntza ordaintzea

Lehendakaritza Arloko zinegotzi ordezkariak deialdia ebazten dutelarik, diru-laguntza osorik ordainduko da.

Diru-laguntza jasoko badu, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak dituela egiaztatu beharko du dena delako

- Certificado de cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

- Declaración jurada conjunta. Se trata de una declaración única que engloba:

1. Declaración de conocer y aceptar las bases de la presente convocatoria de ayudas.

2. Declaración de cumplir los requisitos para ser considerada como pequeña empresa.

3. Declaración responsable de no hallarse incurso en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.

#### Presentación de solicitudes

Las solicitudes, junto a la documentación preceptiva, deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la calle Olaguibel,2. Será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La presentación de solicitud por parte de los interesados y las interesadas implicará la aceptación del contenido de estas bases.

Si la solicitud de subvención no viniera cumplimentada en todos sus términos o no fuera acompañada de la documentación preceptiva, el Servicio de Euskera comunicará este hecho al interesado, vía fax o correo electrónico, concediéndole un plazo de 10 días, a contar desde el siguiente al de su notificación, para que subsane o aporte la documentación precisa, con indicación de que si así no se hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992.

#### Estudio y resolución de las solicitudes

Las solicitudes se resolverán en un plazo máximo de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del plazo para presentar solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud. Serán desestimadas las solicitudes que no cumplan los requisitos exigidos en la convocatoria.

La Junta de Gobierno Local delega en la concejala delegada del área de Presidencia la competencia de concesión de estas subvenciones.

La propuesta de concesión de las subvenciones se formulará a la concejala delegada del área de Presidencia a través del Servicio de Euskera del Departamento de Relaciones Ciudadanas, mediante un órgano colegiado constituido conforme a lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones.

Dicho órgano estará compuesto por tres miembros: el director del Departamento de Relaciones Ciudadanas o persona en quien delegue, el jefe del Servicio de Euskera o persona en quien delegue, y un técnico o técnica del Servicio de Euskera.

Una vez notificada la resolución de concesión de la subvención, si en el plazo de 15 días posteriores a dicha notificación el beneficiario no renuncia expresamente a la misma, se entenderá aceptada.

La resolución de la solicitud será notificada a los interesados, haciéndoles saber que la misma pone fin a la vía administrativa y que contra ella puede interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que la haya dictado, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, o bien cabrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación. Contra la resolución presunta de la solicitud, cabrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de seis meses a contar desde el día siguiente a aquél en que se produzca la desestimación presunta.

#### Abono de la subvención

El pago de la subvención se abonará al cien por cien en el momento en que se dicte la resolución de subvención por la concejala delegada del área de Presidencia.

Previo al abono, la entidad solicitante deberá acreditar estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, así como

erakundeak, baita udal ogasunarekikoak ere. Bestela, geldi atxikiko du Udalak diru-laguntza, harik eta zorra kitatu arte.

#### Interpretazioa

Gasteizko Udalak eta ez bestek izango du eskumena deialdia dela-eta sortzen diren zalantzak argitzeko.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza (Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko osoko bilkuran onetsia eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn argitaratua) hartuko da kontuan, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua zein Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea ere.

#### Datuak babestea

Eskatzaileek ematen dituzten xehetasunak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla jakinarazten du Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, eta diru-laguntzen deialdia kudeatzeko baliatuko direla. Bere eskubideez baliatu nahi duenak –dagozkion datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu eta kontra agertu–, Udaletxeko Argibide Bulegora (Olagibel,2 – 01001 Vitoria-Gasteiz) jo dezake, edo herritarrei laguntzeko bulegoetako batera.

### I. eranskina

#### Merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko diru-laguntzak emateko udal programaren deialdia

Zinpeko aitortpena

Eskatzailearen izena: .....

Nortasun agiria:.....

Enpresa: .....

Kargua: .....

Enpresaren helbidea: .....

IFZ: ..... telefona: .....

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ezagutu eta onartzen dituela Merkataritza establezimenduetan kanpoko errotulazioa aldatzeko eta izenean euskara sartzeko diru-laguntzak emateko udal programaren deialdiari dagozkion oinarriak.

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

- Laguntza eskabide honetaz aparte ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana, edo hauek lortu dituela: zenbatekoa eta erakunde emailea (dagokiona).

- Halaber, helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero saila jakinaren gain jartzeko konpromisoa hartzen du bere gain.

- Enpresa txikitzat jotzeko betebeharrak betetzen dituela.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(lekua eta data).....

Ematen ari zaren xehetasunak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera; diru-laguntzen deialdia kudeatzea da fitxategi horien helburua. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero –norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira jo beharko duzu, helbide honetara: Olagibel,2; 01001 Vitoria-Gasteiz, edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.

con la hacienda municipal. En caso contrario, el ayuntamiento procederá a la retención de dicha subvención hasta la subsanación de la deuda.

#### Interpretación

La resolución de las cuestiones que puedan plantearse en esta convocatoria, serán de exclusiva competencia del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, aprobada por el pleno en sesión ordinaria de 17 de junio de 2005 y publicada en el BOTHA de 13 de enero de 2006; la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; el Reglamento que la desarrolla; y la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### Protección de datos

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa de que los datos personales proporcionados por los solicitantes serán incluidos en un fichero informatizado de datos de carácter personal cuya finalidad es la gestión de la convocatoria de subvenciones. Quienes así lo deseen pueden ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Oficina de Información Central del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (Olaguibel,2, 01001 Vitoria-Gasteiz) y a todas las Oficinas de Atención Ciudadana.

### Anexo I

#### Convocatoria del programa municipal de subvenciones para promocionar la presencia del euskera en el ámbito del comercio.

Declaración jurada conjunta

D./Dña. ....

con DNI....., en su calidad de .....

de la empresa .....

con NIF.....,

domicilio en ..... y teléfono

de contacto .....

#### Declara

- Conocer y aceptar las bases de la convocatoria correspondiente a la "Convocatoria del programa municipal de subvenciones para promocionar la presencia del euskera en el ámbito del comercio"

- No hallarse incurso en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.

- Que además de la presente solicitud de ayuda no ha solicitado ni recibido ayudas para este mismo objeto de otro organismo público o privado, o ha obtenido las siguientes ayudas para el mismo objeto: cuantía y entidad (lo que proceda).

- Asimismo, se compromete a informar a este departamento de las solicitudes de subvención que haya realizado o pueda realizar ante otros organismos públicos o privados para este mismo fin.

- Que cumple los requisitos para ser considerada como pequeña empresa.

Y para que conste donde proceda, lo firma

En....., a..... de..... de 20.....

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa de que los datos personales que Vd. Nos proporciona serán incluidos en los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la gestión de la convocatoria de subvenciones. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Oficina de Información Central del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en la siguiente dirección: Olaguibel,2, 01001 Vitoria-Gasteiz, y en todas las Oficinas de Atención Ciudadana.